



Arartekoaren 2020C-1388-18 Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 7koa. Horren bitartez, amaitu egin da 2018ko udan iraganbidean zeuden migratzaileak gurera iritsi izanari lotuta Arartekoak egin zuen jarduketa.

Aurrekariak

1. 2018ko udan, zenbait herritar-plataformaren eta gizarte-erakunderen kekek jaso zituen Arartekoak. Erakunde horiek adierazi zuten kezkatuta zeudela Andaluziako kostaldetik zetozen immigranteen premia- eta zaugarritasun-egoeragatik, beste batzuetan baino askoz lagun gehiago iristen ari ziren-eta. "Iraganbidean dauden migratzaileak" deritzo fenomeno horri. Horri erantzunez, Arartekoak hainbat jarduera egin ditu, otsailaren 27ko 3/85 Legea —Arartekoa sortu eta arautzekoa— aplikatuz, fenomeno horren berri izateko eta euskal herri-administrazioek egin dituzten jarduketak aztertzeko.
2. 2018ko ekainaren 18a hartu da funtsezko data eta gertaeratzat. Egun horretan hauteman zen Saharaz hegoaldeko 46 immigrante iritsi zirela Donostiako autobus-geltokira. Itxuraz, haien hasierako helmuga ez zen Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE); aitzitik, Europa iparralderantz jarraitu behar zuten bidaia, baina arazo ezezagunen batengatik, ez zuten beren ibilbidea jarraitu, eta ustekabean geratu ziren Donostiako autobus-geltokian. Komunikabideek gertakari horren inguruko zabalkunde handia egin zuten, eta, hortaz, nolabaiteko alarma soziala piztu zen. Estatuko gobernuak ez zien EAEko agintariei jakinarazi immigrante horiek gurera iritsiko zirenik. Halaber, horren ondoko beste joan-etorri batzuen berri ere ez zuen eman; ez zuen jakinarazi zer inguruabarretan iritsiko ziren migratzaileak Euskal Autonomia Erkidegora, ez eta zenbat lagun etorriko ziren ere.

Ordura arte jakina zen bazirela Europa iparralderantz iraganbidean zeuden migratzaileak (bazitekeen horietako batzuek nazioarteko babes eskatzea), zeinak Estatuaren hegoaldeko mugatik sartzen baitziren, nagusiki, muga-postuetatik sartzeko legezko biderik ez zegoelako. Hala ere, ordura arte lagun gutxi iritsi ziren.

3. ACNUR Errefuxiatuentzako NBERen Agentziaren *Zeharkaldi desesperatuak txostenak*¹, zeinak 2018ko urtarriletik abendura bitarteko aldia aztertzen baitu, nabarmentzen du Europako kostaldeetara iritsitakoen kopuruak behera egin zutela aurreko urtearekin alderatuta (139.300 eta 172.324, hurrenez hurren), baina, mendebaldeko ibilbidean (Espainiara iristen dena) % 131 egin zuela

¹ *Zeharkaldi desesperatuak* txostena. Hemen eskuragarri: [<https://www.acnur.org/es-noticias/videos/2019/1/5c525aae4/travesias-desesperadas-espana-se-convirtio-en-el-principal-punto-de-entrada.html>]



gora etorritakoen kopuruak (2017an 28.300 lagun iritsi ziren; 2018an, berriz, 65.400). 2018ko azken sei hilekoko ibilbide-aldaketa izan zen berritasun nagusia, Italiaren edo Greziaren ordean Espainia izan baitzen Europako lurzorurako sargune nagusia.

Migrazioen Estatu Idazkaritzak, Estatuako gobernuak immigrazioaren eta immigranteen integrazioaren arloan definitutako migrazio-politika garatzeaz arduratzen den organoak, Arartekoari bidalitako erantzunean (aurrerago aipatuko dugu) adierazi zuen 2018an ia 40.000 laguni egin zitzaizela harrera ekintza humanitarioko programan, eta, horrez gain, kostaldeetan emandako lehen arretan ia 60.000 lagun artatu zirela.

Azken batean, 2018an, Espainiako kostaldeetara iritsi ziren immigranteen kopuruak nabarmen egin zuen gora, eta datu hori oso garrantzitsua da planteatutako arazoa aztertzeko orduan.

4. 2018ko ekainetik aurrera, migratzaileen (gehienak gizonak ziren) autobus gehiago iritsi ziren EAera, ez bakarrik Donostiara, hasieran bezala, baita Bilbora eta Irunera ere. Arartekoak badaki euskal herri-administrazioek, egoera horretan, arreta emateko zenbait jarduera-ildo abiarazi zituztela, eta lehenengoz koordinatu zirela [Euskadiko Gurutze Gorriarekin](#). Hasieratik, eraginpeko herri-administrazioek esku hartu zuten, eta arreta emateko mekanismoak abiarazi zituzten —aurrerago zehaztu dugu zein—.
5. Migratzaileak Estatuaren hegoaldeko mugatik autobusez iritsi ziren hurrengo aldietan, Euskadiko Gurutze Gorriak eman zion horren berri Eusko Jaurlaritzari. Defentsa-bulego honek dituen datuen arabera, erakunde horrek ordu batzuk lehenago jakinarazten zuen autobusak iritsiko zirela, eta autobusean gutxi gorabehera zenbat migratzaile zihoazen eta zein udalerritara helduko ziren adierazten zuen. Hala ere, beste immigrante talde batzuk ere iritsi ziren EAera, Euskadiko Gurutze Gorriak horren berri izan gabe.
6. Arartekoak egindako ikerketaren arabera, inguruabar hauetan iristen ziren migratzaileak: Andaluziako kostaldeetara iristen ziren immigranteek, hasieran, 72 ordu ematen zituzten polizia-etxean, harik eta herrialdetik irteteko agintzen zien ebazpena emanda aske uzten zituzten arte (ohikoa da prozedura hori). Pertsona horiek pasaportetik gabe iristen dira maiz. Lehen 72 ordu horiek polizia-etxean igaro ondoren, aske uzten zituzten eta hainbat gizarte-erakundek artatzen zituzten. Hala ere, batzuek erabakitzen zuten beren kabuz jarraitzea Europa iparralderako bidea. Estatuaren hegoaldean artatzen zituzten gizarte-erakundeek ikertzen zuten zer laguntza-sare zuten pertsona horiek Estatuan eta nora joan nahi zuten, eta leku horietara bideratzen saiatzen ziren.

Hala ere, gizarte-erakundeekin egindako bileretan (aurrerago aipatuko ditugu horiek), Arartekoak jakin zuen artatutako immigrante batzuek adierazi zutela ez zirela galdetu zein zen beren azken helmuga, eta Bilbo edo Donostia helmuga zutenik ere ez zekitela.

Bildutako informaziotik ondorioztatzen da, beraz, iristeko bi bide zeudela. Lehenengoa antolatuagoa zen, Euskadiko Gurutze Gorriak euskal erakundeek informazioa ematen zuelako, eta, hortaz, beharrezko harrera-baliabideen inguruko gutxieneko aurreikuspena egiten zuelako. Beste bideak bertako zein atzerriko beste erakunde eta pertsona batzuek emandako orientazioa zuen oinarri, ez zegoen zerbitzu publikoekin koordinatuta, eta horrek izugarri zailtzen zuen EAera iristen ziren pertsonen arreta emateko behar ziren baliabideak aurreikustea eta antolatzea.

7. Gurutze Gorriak 3.352 immigrante artatu zituen 2018ko irailaren amaierara arte, eta 5.150 lagun azarora arte. Azkenik, 2019ko martxora arte, guztira, 8.662 migratzaile eman zaie arreta. Horietatik, 3.118 Gipuzkoan artatu dituzte, 5.197 Bizkaian eta 347 Araban, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duenez. Gehienak gizonezkoak ziren, eta, nagusiki, honako nazionalitate hauetakoak: Ginea-Konakry, Mali, Boli Kosta, Kamerun, Nigeria, Senegal eta Burkina Fasokoak.
8. Hona hemen datu interesgarri bat: EAera iritsi ziren immigrante gehienek Europa iparralderantz jarraitzeko asmoa zuten, baina haietako gutxi batzuk, zenbait iturriren arabera % 5 inguru, azkenean, Euskadin geratu dira egoera administratibo irregularrean.
9. Horiek horrela, aipatu behar da esku-hartze sozialeko hirugarren sektorea osatzen duten gizarte-erakundeak asko inplikatu direla irtenbideak bilatzeko orduan, eta euskal erakundeekin lankidetzan aritzeko prest agertu direla. Arlo horretan, Euskadiko Gurutze Gorria aipatu behar dugu bereziki.
10. Gainera, migratzaileak kaleetan zehar ibiltzeak boluntario askoren berehalako elkartasuna eragin zuen, eta horiek herritar-plataformetan antolatu ziren, beren ustez behar bezala asetzen ari ez ziren premiei erantzuteko (eta herri-administrazioei eskatzeko erantzun arin eta integrala eman zezaten).

Herritar-plataforma horiek mobilizatu egin ziren, uste baitzuten, ikuspegi humanitariotik, pertsona horien egoera eta orientaziorik eza kontuan izanda, premiazko jarduketa egin behar zela. Herri-administrazioek estatututako baliabideak erabili ahal izateko ezarritako irizpide zurrinak salatu zituzten nagusiki. Izan ere, plataforma horien iritziz, laburregia zen atsedean hartzeko



eta oneratzeko aurreikusitako epea, eta, zenbaitetan, zaurgarritasun-egoeran zeuden pertsonak baliabideetatik kanpo uzten ziren.

11. Azpimarratu beharra dago fenomeno horren bilakaeraren eta herri-administrazioek bultzatutako neurriak egokitzearen ondorioz, zailtasunetako batzuk, pixkanaka, bideratu egin zirela. Egonaldiak luzatu egin ziren, eta beste baliabide batzuk abiarazi ziren, hala nola Berrizko Olakueta aterpetxea, zeinak eriondoan zeuden pertsoneri arreta ematea baitzuen helburu, eta Oñatiko Larraña Etxea aterpetxea, zeinak nazioarteko babesa eskatzen zuten pertsonak hartzen baitzituen. Horrez gain, beste baliabide batzuetan, plaza gehiago eskaini ziren —aurrerago xehetasunez aztertuko dugu hori—.
12. Herritar-plataformek mahaigaineratu zuten beste arazoetako bat hauxe zen: zaurgarritasun handieneko taldeek, emakumeek eta haurrek, arreta espezializatua, eta, batzuetan, premiazkoa, behar zutela. Horri dagokionez, euskal herri-administrazioek behin eta berriz esan dute, egindako bileretan, kasu horietarako tratamendu-protokolo espezifiko bat dagoela, talde horien beharrak asetzeko, eta, beraz, zailtasunen bat egon bada, litekeena dela akatsen batek edo koordinaziorik ezak eragin izana hura.
13. Herritar-plataformek salatutako gabeziatako bat zen arreta ez zegoela pertsona horietako batzuen beharretara egokitua; arreta berezia behar zuten, batik bat, zaurgarritasun-egoeran zeuden pertsonak, bereziki emakumeek, bidaiari jasandako bizipenak, hala nola erasoak eta trauma emozionalak, zirela-eta. Gainera, plataformek planteatu zuten ez zegoela behar adina itzulpen- eta interpretazio-baliabide egokirik. Halaber, nabarmendu zuten sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen salerosketa hautemateko neurri sendoagoak behar zirela, egoera hori, kasu askotan, ikusezina zen-eta.
14. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren erantzun egokia eta inplikazio positiboa goraiatu zuten plataformek, baina komunikazioa hobetu beharra zegoela adierazi zuten. Hain zuzen ere, baloratu zuten immigranteek komunikatzeko erabiltzen zuten hizkuntza (nagusiki, frantsesa) ezagutzen zuten pertsonen laguntzaz egin beharko litzatekeela osasun-zerbitzuen esku-hartzea, eta, hortaz, hizkuntza hori zekiten boluntarioek lagundu zieten migratzaileei. Gabezia bakarra aipatu zuten: ospitaleko altei zegokienez, ez zegoela koordinaziorik ospitaleekin.
15. Herritar-plataformek beste arazo bat aipatu zuten, hain zuzen ere iraganbidean zeuden zenbait migratzailek esaten zutela 18 urte baino gutxiago zutela, nahiz eta nahitaez irteteko agindua emateko ebazpenean ageri 18 urte baino gehiago zutela. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren





Idazkaritza Nagusiak jakinarazi duenez, interesdunak adingabeak zirela oso nabarmena zenean, erakundeek egitate horien berri ematen zioten fiskaltzari, benetan adingabeak ote ziren egiaztatzeko probak egin ziezazkien. Egindako probetatik ondorioztatzen baldin bazen interesduna adingabea zela, foru-aldundiek beren gain hartzen zuten haren babesa. Bestalde, gizarte-plataformek jakinarazi dute, kasu batzuetan, adingabeek plaza zuten egoitzetatik alde egin zutela, nahiz eta adin nagusiko bihurtu arte babesa eta arreta jasotzeko aukera izan.

16. Azkenik, gizarte-erakundeek aipatu zuten Frantzia itzulketak egiten ari zela, eguneko zein gaueko edozein ordutan, mugako edozein puntutatik, inori abisatu gabe eta bete gabe Frantziako Errepublikak eta Espainiako Erresumak 2002ko azaroaren 26an *ad referendum* egin zuten akordioan, egoera irregularrean zeuden pertsonak berriz onartzeari buruzkoan, ezarritako legezko prozedura. Akordio horren arabera, herrialde bakoitzak bere lurraldean berriz onartu behar ditu, beste alderdiak hala eskatuta eta inolako formalitaterik gabe, lurralde horretan bizi edo bertatik igaro diren pertsona guztiak. Muga igaro eta lau ordura entregatuko dira pertsona horiek. Dirudenez, migrazioa kontrolatzeko neurriak areagotu ziren Frantzian, Frantziako Barne ministroak 2018ko urriaren 21ean iragarri zuenez, eta polizia gehiago jarri ziren nazioarteko zubietan eta satorraren nahiz trenbideen geltokietan.
17. Laburbilduz, herritar-plataformek egindako eskaeretako bat da baliabideetan egindako egonaldia luzatzea; hasieran aurreikusi zen egonaldiak 3 egunekoak izango zirela, eta, ondoren, 5 eguneko egonaldiak ezarri ziren. Era berean, eskatu zuten gehieneko egonaldia gutxienez 6 hilabetekoa izan zedila, Berrizkoa bezalako baliabide gehiago jar zitezela, antzeko beste baliabide bat ezar zedila Irundik hurbilago, eta Oñatin abian jarritakoak baino plaza gehiago eskain zitezela asilo-eskatzailleentzat. Halaber, beste eskaera batzuk planteatu zituzten; hain zuzen ere, adierazi zuten oso garrantzitsua zela zentroetan plaza hutsak egonez gero pertsonak artatzea, eta eskatu zuten Donostian aterpetxe bat ezarri beharra baloratzeko. Bestalde, nabarmendu zuten oso garrantzitsua zela egun osoan zehar ematea arreta.
18. Hona hemen **Arartekoak, herri-administrazioek emandako erantzunen berri izateko, egin dituen jarduketak:**

Alde batetik, udal-mailan, Ararteko erakundeko langileek hainbat bilera egin dituzte EAEko hiriburuetak (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) udaletako gizarte-zerbitzuekin, baita Irungo Udalekoekin ere.





Bestalde, EAEn, erakunde honek bilerak egin ditu Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, sail horren beraren ekimenez, eta, horrez gain, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiarekin bildu da.

Halaber, gizarte zibilari dagokionez, Ararteko erakundeko langileak gizarte-erakundeekin bildu dira, eta Bizinahi baliabidea bisitatu dute —Bilboko Zorrotzaurre auzoan dagoen eraikin industrial zaharra da, eta hainbat herritar-plataformak eta gizarte-erakundek kudeatzen dute, boluntarioen laguntzaz—.

Arazo horrek komunikabideetan oihartzun handia izan duenez, 2018ko irailaren 21ean, Bizkaiko Enplegu, Gizarteratze eta Berdintasunerako foru diputatuak agerraldia egin zuen lurralde historiko honetako Batzar Nagusietan. Era berean, 2018ko urriaren 11n, Harrerarako Herritarren Sarearen ordezkari batek ere agerraldia egi zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietako Gizarte Politiken Batzordean. Bi agerraldietan informazio garrantzitsua eman zen, eta hura kontuan hartu da azterlan hau egiterakoan.

Azkenik, herriaren defendatzaileak ikuskatu behar dituen eskumenei eragiten dienez arazo horrek, Arartekoak erakunde horren esku-hartzea eskatu zuen, eta immigranteak EAera iristeari lotutako zenbait inguruabarren berri eman zion, informazio hori interesgarritzat jotzen zuelako bulego hori itsasertzean, Alborango itsasoan eta horien ondoko uretan, bai eta kostaldera edo Ceutako eta Melillako mugetara iritsitako pertsonen berehalako arreta emateko programen inguruan ere, egiten ari den jarraipenari begira.

Halaber, besteak beste CEAR, SOS Arrazakeria eta Caritas gizarte-erakundeen jardura-memoriak eta urteko txostenak berrikusi dira, eta Irekiari esker —Eusko Jaurlaritzaren informazio-orria da, eta bere helburuetako bat da gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzea— lortutako informazio espezializatua aztertu da.

Beraz, Arartekoak egindako aurreko jarduketetan eta Ararteko erakundeko langileek egindako bileretan eta kontsultatutako iturrietan bildutako informazioan oinarritzen da azterlan hau.

19. **Nola erantzun dieten erakundeek** iraganbidean zeuden hainbat migratzaile 2018ko udan gurera etorri izanari.

Arestian aipatu dugunez, urteak dira migratzaileak EAera iristen ari direla. Immigrazioari buruzko lehenengo euskal plana 2003an onetsi zen, eta, orduetik, hainbat jarduketa-plan egin dituzte euskal herri-administrazioek, aldundiek eta udalek, bai eta hainbat txosten eta programa ere.





2018ko udan, egoera bestelakoa izan zen, batik bat, autobusez iritsitako migratzaileen kopuruak gora egin zuelako. Azterlan honen hasieran azaldu dugun egoeraren ondorioz, mobilizatu egin ziren bai herri-administrazioak — baliabide berriak eta koordinazio-sare bat abian jarri zituzten—, bai hirugarren sektoreko elkarteak eta herritar-plataformak.

Arazo honetan euskal herri-administrazioek egindako jarduna aztertu du Arartekoak, bere eskumena baita hori, eta, bere ustez, erakundeek azkar erantzun behar izan zieten beharizan berriei, aurre eginez denbora-tarte laburrean baliabide materialak eta giza baliabideak gehitu behar izateak dakartzan zailtasunei. Gainera, gizonei, emakumeei, haurrei eta gazteei eragin zieten ustekabeko egoera askori egin behar izan zieten aurre euskal erakundeek, eta horiek ahalik eta modurik onenean kudeatu behar izan zituzten, denbora-tarte laburrean.

Hona hemen datu interesgarri bat: erabilitako baliabideetako batzuek, hala nola Gurutze Gorriaren laguntza humanitarioko programak, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren finantzaketa jaso zuten. Halaber, euskal herri-administrazioek funts publikoetara jo behar izan dute, eta azpiegiturak ezarri eta obrak egin behar izan dituzte.

Jarraian, zehatzago azalduko dugu nola erantzun zioten euskal herri-administrazioek azaldutako egoerari:

Lurraldeko eta erakunde arteko koordinaziorako mahaiak

Sortu zen egoera ikusita, lurraldeko eta erakunde arteko koordinaziorako mahaiak antolatu ziren, astean behin hasieran, honako hau aztertu nahi zen-eta: zer bilakaera zuen mahaietara azaltzen zen lagunen kopuruak, eskura jarritako plazak egokiak ote ziren, eta zer behar berri identifikatu eta zer erabaki hartu ziren.

Erakunde arteko koordinaziorako mahai horietan parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzak (Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza, Gizarte Politiketako Sailburuordetza eta Seguratasun Saila), hiru foru-aldundiek, Bilboko, Donostiako, Gasteizko eta Irungo udalek, Gurutze Gorriak, Harresiak Apurtuzek, Caritasek, CEAREk, SOS Arrazakeria Gipuzkoak (eta Gobernu Ordezkaritza, zeinak abuztuan bat egin baitzuen). 2018ko urritik aurrera, bilera horiek hilean behin egiten hasi ziren.





Horrek berekin ekarri du alderdi guztiak elkarrekin koordinatzea, migratzaileei arreta emateko, haien beharrak aztertzeko eta inplikaturako euskal erakundeen erantzunak hobetzeko aukera baloratzeko.

Hori horrela izanik, esku hartu zuten eragileek aukera izan zuten eskura zuten informazioa emateko elkarri.

Abian jarritako baliabideak

Hasiera-hasieratik, baliabideak abiarazi ziren, presaz, hiru lurralde historikoetako hiriburuetan. Adibidez, Bilbon, 2018ko ekainean ezarri ziren horiek, iraganbidean zeuden migratzaileek han eman ohi zutelako denbora gehien. Donostian ere baliabide bat jarri zen. Hasieran, ez zuen janaririk eta komunik, eta, beraz, migratzaileek beste leku batzuetara joan behar izaten zuten, baina gero cateringeko janaria eskuratzeko aukera eman zen. Gasteizen, administrazioak hainbat plaza jarri zituen eskura egoera horri erantzuteko.

Horren ondoren, 2018ko uztailaren amaieratik aurrera, iraganbidean zeuden migratzaileak, Bilbora iristen jarraitu ez ezik, zuzenean Irunera joaten hasi ziren. Hori dela eta, hainbat erantzun baloratu ondoren, udalerrri horretako udalak baliabide bat ireki zuen negu hasieran, ustekabeen sortutako egoera horri erantzute aldera. Udalak bazuen baliabide hori lehendik ere, eta tenperatura baxuak zeudenean etxegabeak hartzea zuen helburu. Horrez gain, udal-ikastetxe bateko gimnasioa erabili zen behin-behineko harrera-baliabide gisa.

Aurrerago, 2018ko irailean, Martindozenea aterpetxea jarri zen abian, eta horren kudeaketa Euskadiko Gurutze Gorriaren esku utzi zen. Aterpetxe hori ezin izan zen aurretik ireki, udan gazteentzako udalekuak antolatuta zeudelako eraikin horren beheko solairuan. Bestalde, Irungo aterpetxea irekitzean, Donostiako baliabidea itxi zen. Aurrerago, Irungo gimnasioa itxi zen, baita aipatu dugun neguko baliabidea ere. Baliabide hori 2018ko urriaren 11n ireki zen berriro, Gurutze Gorriak kudeatutako Martindozeneako baliabidean sartzeko baldintzak betetzen ez zituzten pertsonen ostatu emateko. Halaber, Irungo eguneko zentroan, eguneroko otorduak eta komunak jarri ziren eskura. Gainera, neguko tenperaturen ondorioz, 2018ko urritik aurrera, Martindozeneako baliabidea 24 orduz irekitzen hasi zen. Baliabide horretan, arreta berezitua eskaini zitzaion emakumei, haurrei eta bereziki zaugarriak ziren pertsonen. Bestalde, dirudienez, aurreikusitako da, 2019ko urritik aurrera, beste baliabide bat abian jartzea Martindozeneako aterpetxearen orde.





Baliabide hori egokitzen ari dira, aterpetxetik 700 metrora baino ez dago, eta 100 plaza inguru eta antzeko xedea eta ezaugarriak izango ditu.

Azkenik, 2018ko azaroan, gizarte-bazterketako egoeran zeuden pertsonentzako gaueko harrera-baliabide bat ireki zen, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa) xedatutakoa betez, eta itxi egin zen urriaren erdialdean irekitako baliabidea. Irungo Udalak eman digun informazioaren arabera, baliabide hori ez dago aurreikusita iraganbidean dauden migratzaileak hartzeko, ez bada salbuespenezko beharrak edo inguruabarrak daudelako.

Nabarmendu beharra dago denboraren poderioz malgutu egin direla baldintzak, eta honezkero iraganbidean dauden migratzaileei ez zaiela eskatzen Estatuan hilabete baino gutxiago daramatela egiaztatzeko edo Barne Ministerioak emandako nahitaez irteteko ebazpena aurkezteko.

Defentsa-bulego honek nabarmendu nahi du nagusiki Euskadiko Gurutze Gorriak eman diela arreta pertsona horiei, hainbat udalerritako udalekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean. Laguntza humanitarioaren esparruan, "atseden hartzeko edo sendatzeko laguntza" deritzo Gurutze Gorriak emandako arretari. Horrek esan nahi du, hasieran, migratzaileei harrera egin zaiela, eskura dituzten zerbitzuen berri emateko eta lehenengo balorazio sozial eta sanitarioa egiteko. Gurutze Gorriak egindako harreran, ura eta janaria eman zaie, eta komuna erabiltzeko, mugikorra kargatzeko eta WIFla baliatzeko aukera izan dute. Horri esker, harremanetan jarri ahal izan dira jatorrizko herrialdeko pertsonekin edo helmugako beste pertsona batzuekin. Horrez gain, aholkularitza juridikoa, gizarte-orientazioa eta hainbat informazio eman zaizkie, eta osasun-egoeraren azterketa, osasun-laguntza eta medikuak agindutako sendagaien farmazia-gastuen ordainketa bermatu zaizkie. Gainera, gosaria, bazkaria eta afaria eskaini zaizkie. Aurretik adierazi dugunez, hasieran hiru egunez ostatu hartzeko aukera eman zitzaien, baina, ondoren, bost egunera arte luzatu zen egonaldia, eta, behar izatekotan eta lekua egonez gero, 7 egunera; halaber, gerta zitekeen, eskaera gauez egin arren, plazak eskaintzea, baldin eta egoitza-baliabidean plaza hutsak bazeuden.

Hona hemen interesdunek bete beharreko baldintzak:

Iraganbidean zeuden pertsonen zuzenduta zeuden baliabideak. Gurutze Gorriak kudeatzen zituen baliabideak eta hark esleitzen zituen plazak. Horiek erabili ahal izateko, beharrezkoa zen itzultzeko agindua emateko ebazpena eman izana (baldintza hori malgutu egin da gero). Gainera, eskatzen zen 30 egun baino gutxiago igaro izana kostaldean erregistratu zirenetik, hau da,





Espainiako lurraldean sartu zirenetik (ondoren, baldintza hori ere malgutu egin da). Baliabidea 3-5 egunez erabil zitekeen (hala ere, salbuespenak zeuden zaugarritasun-egoeretan). Baliabideak 20:30etik hurrengo eguneko 08:00etara egoten ziren zabalik asteko egun guztietan, hau da, Gurutze Gorriak kudeatutako zentroetan ostatu hartzen zuten lagunek horiek utzi behar izaten zituzten egunean zehar.

Aipatu dugunez, hilabeteak igaro ahala, malgutu egin ziren hasieran ezarritako baldintzak, eta zerbitzu gehiago eskaintzen hasi zen.

Eskura zeuden baliabideak aldatu egin ziren; 2018ko irailean, 213 plaza zeuden, eta honela zeuden banatuta:

- Bilbo (Peñascal zentroa) 88 plaza. Gainera, arropa eros zezaketen [Kooperak](#) dendan.
- Gasteiz (Pio Baroja ikastetxea): 35 plaza.
- Donostia (Zorroaga): 30 plaza.
- Irun (Martindozenea): 60 plaza.

Gainera, zenbait faktore zirela tarteko —nagusiki, zaugarritasun-egoeran zeudela-eta (adingabeak beren ardurapean zituzten emakumeak, bakarrik zeuden emakumeak eta eriondoan zeuden pertsonak)— denbora luzeagoa behar zuten migratzaileei tarteko arreta edo erantzuna emateko aukera aztertu zuten herri-administrazioek. Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzak baliabide bat ireki zuen Berrizen: Olakueta aterpetxea. Baliabide horretan gehenez ere 15 egun egon zitezkeen (20ra luza zitezkeen denbora hori, erakunde kudeatzailearen irizpidearen arabera). [EDE Fundazioak](#) kudeatu zuen baliabide hori. Hona hemen baliabidearen helburu zehatzak: oinarrizko premiak (ostatua, elikadura, arropa, oreka emozionala, etab.) asetzea, babesgabetasun eta egurats zabaleko egoerak gutxitzea eta saihestea, informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematea, gizarte-zerbitzuei eta beste erakunde batzuei buruzko informazioa ematea eta baliabidearen antolaketan parte hartzea. 20 plazako edukiera zuen, eta 15-20 eguneko egonaldiak egiteko zegoen aurreikusita, irizpide teknikoaren arabera.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak beste baliabide bat jarri zuen abian 2018ko urrian, Oñatiko (Gipuzkoa) Larraña Etxea aterpetxea, eta horren helburua zen nazioarteko babeska eskatzen eta jasotzen zuten pertsonen eta familien eta, salbuespeneko kasuetan, zaugarritasun-egoeran edo iraganbidean zeuden edo iritsi berri ziren migratzaileei harrera egitea. Zentroan, estatua, mantenua eta orientazioa ematen zaie pertsona horiei, eta bideratu egiten dituzte. [CEAR](#)ek kudeatzen du baliabide hori. 100-130 plaza ditu, eta 3 hilabeteko





egonaldia egin daiteke han, baina denbora hori alda egin daiteke, irizpide teknikoaren arabera.

CEARek bere memorian adierazi du 2018ko urrian zentroa ireki zenetik 2019ko martxora arte 22 nazionalitateko 104 lagun igaro zirela handik. Baliabidearen erabiltzailearen profila Saharaz hegoaldeko Afrikatik (Ginea Konakry, Kamerun, Boli Kosta...) etorritako gizon gaztea da (20 eta 30 urte bitartekoa). Adingabeak beren ardurapean zituzten familiak eta bikote bat ere bizi izan dira han. Baliabidea abian izan den lehen seihilekoari dagokionez CEARek aurtengo martxoan egin duen balantzean, erakunde horrek azpimarratu du eragile publikoak zein pribatuak (hala nola herritar-plataformak) koordinatu eta inplikatu egin direla, eta horrek mesede egin diola migratzaileen gizarteratzeari.

Hona hemen datu garrantzitsu bat: 2019ko ekainean Eusko Jaurlaritzak iragarri zuen kontingentzia-plan bat prestatu zuela, iraganbidean zeuden migratzaileak hurrengo hilabeteetan artatzeko. Plan horretan, hainbat egoera probable, posible eta salbuespenetzko aurreikusi ziren. Egoera horiek oinarri hartuta, planteatu zen pertsona-kopuru jakin bat iritsiko zela, eta zehaztu zen zenbat plaza izango ziren horientzat eta zer zerbitzu jasoko zituzten. Iraganbidean zeuden migratzaileei Gurutze Gorriaren zerbitzuaren bidez eskaini behar zitzaizen larrialdiko harrera, Migrazioen Estatu Idazkaritzak ezarritako esparruaren arabera. Planean, besteak beste, aurreikusi zen nola bideratuko ziren pertsona horiek, zer arreta emango zitzaizen eriondoei eta emakumeei (adingabeak izan ala ez), eta zenbat iraungo zuten egonaldiak. Eusko Jaurlaritzak eta gainerako euskal erakundeek beren gain hartzen zuten zerbitzu horren finantzaketa eta laguntza, Espainiako Gobernuak aurreikusitakoaren osagarri zen guztiari zegokionez, 2018an garatutako ereduari jarraituz. Txosten honen xedea ez da plan hori garatzea, baina interesgarria dirudi hura aipatzeak, balizko egoerak aurreikustea positiboa delako aurreko urteko erantzuna hobetzeko.

Bestalde, arlo politikoan, Eusko Jaurlaritzak berretsi du migratzaileen egoerak izaera globala eta europarra duela, eta, horregatik, zenbait esku-hartze egin ditu Europako Batzordeko Migrazio eta Barne Gaietarako Zuzendaritza Nagusian eta Europako Eskualdeen Batzordean. Horren harira, eskatu du jarraitu beharreko estrategia Europar Batasuna osatzen duten gainerako herrialde eta eskualdeekin eta Europako Eskualdeen Batzordearekin batera zehazten laguntzeko aukera eman ziezaioten, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte- eta geografia-ingurunearen egoerari buruzko ezagutza du-eta. Gainera, ohartarazi du ezinbestekoa dela migrazio-mugimenduen berri izatea, eta fenomeno hori konpontzeko oso garrantzitsua dela EBk epe labur, ertain eta



luzerako bere plangintza egitea. Halaber, aipatu du Europar Batasuneko estatuen erantzunkidetasuna nahitaezkoa dela.

Askotariko jarduerak egin ditu Eusko Jaurlaritzak; esate baterako, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Espainiako Gobernuko Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Batzorde Sektorialaren zenbait bileratan hartu du parte. Arartekoak duen informazioaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, bilera horietan azpimarratu zuen, besteak beste, migratzaileak premiaz hartzeko orduan ezinbestekoa zela koordinatuta eta lankidetzan aritzea; hori dela eta, hau eskatu zuen: Ministerioak bideratzeen berri emateko eta jakinarazteko zenbat migratzaile iritsiko ziren EAera, migratzaileen etorrera ez-arautuari modu solidarioan eta humanitarioan aurre egiteko behar ziren baliabideak antolatzeke, eta migratzaileei harrera egiteko eta haiek gizarteratzeko erantzunak koordinatzeko eta optimizatzeko, bereziki erreparatuz bakarrik zeuden adingabe eta gazte atzerritarrei. Era berean, proposatu zuen lehenbailehen abiaraztea prozedura adostu bat, hura onartzen zuten autonomia-erkidegoei lan-kontratuei lotutako behin-behineko (hiru urteko) bizileku- eta lan-baimenak emateko legezko gaitasuna aitortze aldera. Horrek aukera emango luke sistematik kanpo geratzen diren gazteak, erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak edo nazioarteko babeska eskatzen dutenak hobeto integratzeko, eta EAeri harrera- eta integrazio-eskumena lehenbailehen transferitzeko. Eusko Jaurlaritzak, Espainiako gobernuari zuzendutako proposamenen artean, [Share proposamena](#)² nabarmendu du, eta proposatu du hura aplika dadila asiloa eskatzen duten pertsonak eta bakarrik dauden adingabe atzerritarrak autonomia-erkidegoetan banatzeko eta EBko estatuek migrazio- eta asilo-erronkei aurre egiteko erantzunkidetasun-akordioa lortze aldera.

Azkenik, Herritarren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Eremuan Jarduteko [V Euskal Plana](#)³ onetsi du Eusko Jaurlaritzak. Halaber, 2018an, Integrazioaren aldeko euskal [Itun Soziala](#)⁴ jarri du abian; Lehendakariak 2019ko azaroaren 29an aurkeztu du itun hori, eta, haren bidez, Euskadik diskurtso partekatua eta batasun-irudia finkatu ditu migrazio-erronkei modu positiboan erantzuteko eta demagogia populistari aurre egiteko, eta lan- eta

² Linean eskuragarri:

https://bideoak2.euskadi.eus/2019/05/06/news_53908/Propuesta_Share_eusk.pdf

³ Linean eskuragarri:

[\[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_estrategicos_inmigracion/eu_planes/adjuntos/vplaninterculturalidad_eu.pdf\]](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_estrategicos_inmigracion/eu_planes/adjuntos/vplaninterculturalidad_eu.pdf)

⁴ Linean eskuragarri:

[\[https://www.euskadi.eus/migrazioarako-euskal-itun-soziala-elkarbizitzaren-aldeko-konpromezua/web01-s2enple/eu/\]](https://www.euskadi.eus/migrazioarako-euskal-itun-soziala-elkarbizitzaren-aldeko-konpromezua/web01-s2enple/eu/)



demografia-premiei aurre egite aldera etika demokratikoan eta aurrerapenean oinarritutako ikuspegia duen harrera-eredua planteatu du. Itun horrek aitortu du euskal gizartea anitza dela, eta giza eskubideetan, berdintasunean eta diskriminaziorik ezan oinarritutako ikuspegia sustatu du, genero-berdintasunari bereziki erreparatuz, herritartasun anitz eta inklusiboa bultzatzeko.

Atal hau amaitzeko, azpimarratu behar da euskal herri-administrazioak proaktibo agertu direla Eusko Jaurlaritzaren jardueri buruzko informazioa emateko orduan, eta [Irekiaren](#) bidez (Eusko Jaurlaritzaren informazio-orria) emandako arretari buruzko datuak eman dituztela.

20. Herritarren plataformek **bultzatutako baliabideak**

Pertsona horiei harrera egiteko, herritar-sareak eta boluntarioek osatutako herritar-plataformak antolatu zituen gizarte zibilak Bilbon, Donostian eta Irunen.

Bilbon, Bilboko Harrera Auzoak sareak (Komunitate afrikarraren zenbait erakunderekin, [SOS Arrazakeriarekin](#) eta [Ongi Etorri Errefuxiatuakekin](#) batera) egin zituen harrera-jarduera horiek. Herritar-plataforma horrek, Zorrotzaurre Auzo Elkartearen laguntzaz, [Bizinahi dispositiboa](#) jarri zuen abian 2018ko uztailetik urrira bitartean. Aurretik, Uretamendi ikastolan, Miribillako parrokian (Carmela) eta Atxurin antolatu zen. Migratzaileek ostatu hartu zuten eraikina, horren aurretik, Erriberako Auzo Elkarteari laga zitzaion, intereseko jarduera kulturalak egin zitzaion. Baliabide horretan, Gurutze Gorriaren aterpetxeetan sartzeko baldintzak betetzen ez zituztenek hartu zuten ostatu. Era berean, informazioa eta aholkularitza eman zitzaion erakundeen mendeko baliabideetan ostatu hartu baina egunean zehar gunehorretara joaten zirenei.

Defentsa-bulego honetako langileekin egindako bileretan, plataforma horiek aipatu zuten egunean 100-150 lagun inguru artatu zituztela, eta, guztira, 3.000 bat lagun artatu zituztela. Datu horiek ahoz aipatu zituzten, baina ez zuten adierazi berariazko fitxarik zegoenik. Deskribatutako profila, gehienbat, 18 eta 25 urte bitarteko gizon gazteena zen.

Eraikinean, dohaintzan emandako material jakin batzuk zeuden, eta, horiei esker, migratzaileek janaria prestatu, lo egin, eta beren burua garbitu zezaketen, eta informazioa eta aholkularitza jaso zezaketen, bileren eta dokumentuen (esaterako, frantsesezko mapa bat, zeinak zerbitzuei buruzko informazioa biltzen baitzuen) bidez. Baliabide horren instalazioak bisitatu zituen Arartekoak 2018ko urriaren 10ean, hura ixteko aurreikusitako data (urriaren 14a) baino egun batzuk lehenago. Bisitaldian, eguneroko jardueren eta eskaintzen zituzten zerbitzuen antolaketaren berri izateko aukera izan zuen





erakunde honek. Halaber, egiaztatu zen pertsona askok beren ekarpena egin zutela, borondatez, beren trebetasunak eta ezagutzak eskainiz hautemandako premiak arintzen laguntzeko. Esaterako, fisioterapiari prestakuntza zuten boluntario batzuek errehabilitazio emateko eskaini zuten beren burua. Dentistek ere tratamendua eskaini zuten, migratzaile askori eragiten dien arazo larria baita aho-hortzen osasuna. 150 boluntario inguruk hartu zuten parte proiektuan, eta horietako 30 inguru bereziki aktiboak izan ziren. Plataforma horiekin egindako bileran, Arartekoak jakin zuen zerbitzu hori abian jarri zela, besteak beste, janari eta arropa egokien beharrak asetzeko orduan gabeziak zeudela hauteman zelako. Ekorropako tikea ez omen zen nahikoa.

Boluntarioek egin dituzten esku-hartzeen artean, nabarmentzekoak dira Osakidetzako osasun-zerbitzuetara laguntzea eta haiekin koordinatzea. Horrez gain, gaztelaniazko eskolak eman zituzten udan, 2018ko irailetik aurrera Helduen Hezkuntza Iraunkorreko (HHI) zerbitzuetara bideratu baitzituzten. Baliabidea itxi ondoren geratzea erabaki zuten migratzaileak hainbat harrerataldetara bideratu zituzten (Busturialdea Harrera Eskualdea, Galdames, Bakio, Arrigorriaga, Artea, Lekeitio...), bai eta herri-administrazioek Gurutze Gorriarekin koordinatuta eta gizarte-erakunde horrek kudeatuta sustatutako baliabideetara ere.

Harrerarako Herritarren Sareak 2018ko urriaren 11n Batzar Nagusietan – Donostian – egin zuen agerraldian adierazi zuenez, herritarren parte-hartzerako sare horrek 220 lagun artatu zituen, 201 gizon, 17 emakume, neskato bat eta mutiko bat, eta, abuztutik urrira bitartean, 25 lagun inguruk eman zuten gaua Irungo "Lakasita" Gaztetxean.

2018ko urrira arte, iraganbidean zeuden eta baliabide ofizialetatik kanpo geratu ziren migratzaileentzako aterpetxea eta eguneko zentroa izan zen Gaztetxea, eta baliabide ofizialetan lo egiten zutenetako batzuk ere hantxe egon ziren egunez. Nabarmendu zutenek, Donostiako eta Irungo 150-200 lagun inguruk hartu zuten parte. Batzar Nagusietako agerraldi horretan, jakinarazi zuten 1.000 lagun baino gehiago artatu zituztela. Halaber, jakinarazi zuten Antiguako Txantxerreka Gaztetxearen babesa jaso zutela, 12-16 laguni ostatu emateko.

Gizarte-erakunde horietako kideek adierazi dutenez, herri-plataforma guztietan, lege-aholkularitza eskaini zitzaizkien migratzaileei, bai beren administrazio-egoerari buruz, bai nazioarteko babesa eskatzeko aukerari buruz. Arropa, norberaren garbitasunerako tresnak eta mugikorrak kargatzeko aukera eman zitzaizkien, eta izapide jakin batzuk egiten lagundu zitzaizkien, bai zeregin pertsonaletan, bai Espainiako edo Europako beste herri batzuetara iristeko



moduari buruzko informazioa emanaz, leku horietan familia- edo gizarte-sareren bat zutela argudiatuz gero. Halaber, frantsesez (iraganbidean dauden migratzaile gehienek komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza) zekiten boluntarioek osasun-zerbitzuetara lagundu dituzte. Arartekoko lantaldeari jakinarazi zitzaionez, batzuetan, taldeak antolatu dira, kaleetan eta geltokietan zaurgarritasun-egoeran zeuden pertsonak detektatzeko. Gainera, salbuespenezko kasuetan boluntarioek beren etxeetan eman diete ostatu migratzaileei, eta beren burua identifikatu dute, senideek errazago bidali ahal izateko dirua. Herritarren plataformek adierazi dute kontuan izan behar dela pertsona horiek zeharkaldi oso gogor eta traumatikoak egin dituztela, eta, beraz, lasaitasun- eta zaintza-gune bat eta informazio oso eta egokia behar dutela, indarberritzeko eta presiorik gabe erabaki egokiak hartu ahal izateko.

21. Aurrekarien atala amaitzeko, Herriaren Defendatzaileari ofizioz bidalitako jarduketari dagokionez jasotako erantzuna aipatu nahi du Arartekoak.

Herriaren Defendatzaileak Arartekoari jakinarazi dio Migrazioen Estatu Idazkaritzari eskatu ziola balora zezala hautemandako jardunbidea, hau da, atzerritarrak autobusez hainbat hiritara eraman izana, helmugako harrera koordinatu gabe eta pertsona horiek kalean utziz, bai eta, hala bazegokion, hartutako erabakiak ere.

Horri erantzunez, Herriaren Defendatzaileak jakinarazi digu 2018ko uztailaren 24an hiru gomendio egin zizkiola Migrazioen Estatu Idazkaritzari, eta hau adierazi ziola horietan:

"1. Que se destinen, con carácter de urgencia, los fondos adicionales necesarios para que las personas que acceden irregularmente a las costas españolas, con independencia de su nacionalidad, cuenten con alojamiento, manutención y cobertura de sus necesidades básicas, dotándoles de unas mínimas herramientas sociales para favorecer su integración en la sociedad de acogida. Recomendación aceptada

2. Que, sin demora, se establezcan cauces de coordinación adecuados entre la Secretaría de Estado de Migraciones y la Secretaría de Estado de Seguridad, que garanticen la existencia de plazas suficientes del programa de acogida humanitaria. Las citadas plazas han de ir destinadas a personas inmigrantes, con independencia de su nacionalidad, que se encuentren en situación de vulnerabilidad debido al deterioro físico y a la carencia de apoyos sociales, familiares, medios económicos, y que lleguen a las costas españolas o formen parte de asentamientos que comporten graves riesgos sociales y sanitarios y

*precisen de programas de actuación inmediata para su subsanación.
Recomendación aceptada*

3. Que, a la mayor brevedad, se revise el protocolo de atención de emergencia a grandes contingentes, que tiene por objeto atender las situaciones de emergencia humanitaria derivadas de estas llegadas a través de la frontera terrestre o marítima, para evitar el uso de infraestructuras no idóneas para la primera acogida y asistencia.”

Azken horri dagokionez, Migrazioen Estatu Idazkaritzak Herriaren Defendatzaileari jakinarazi zion migratzaile ugari iritsi behar zirenez, egoera horri aurre egiteko jarduketa-protokoloa prestatzen ari zela, otsailaren 11ko PCI/121/2019 Aginduan xedatutakoarekin bat. Agindu horren bidez argitaratu zen Ministroen Kontseiluaren 2019ko otsailaren 1eko Erabakia, zeinaren bidez neurri gehigarriak ezarri baitziren gaitasun operatiboak indartzeko eta Gibraltarko itsasartean, Alborango itsasoan eta horien ondoko uretan immigrazio irregularrari aurre egiteko jarduketak koordinatzeko agintaritzaren etengabeko egokitzapena bermatze aldera.

Estatuko Idazkaritzak, halaber, Herriaren Defendatzaileari jakinarazi zion **erabat gaitzesten zuela kostaldera iritsitako atzerritarrak autobusez hainbat hiritara eramatea, harrera koordinatu gabe, eta iragarri zuen neurriak hartu zituela horrelakorik berriro gerta ez zedin.**

Azkenik, Herriaren Defendatzaileak Arartekoari jakinarazi dio aurreko gomendio baten jarraipena egin duela. Gomendio hori 2016ko uztailaren 19an egin zitzaion orduko Immigrazio eta Emigrazioko Idazkaritza Nagusiari, harrera-sisteman laguntzen duten gobernuz kanpoko erakundeen jarduna gainbegiratzeko sistema eraginkorra ezar zedin.

Dioenez, *“la necesidad de evaluar la actividad de las organizaciones no gubernamentales que gestionaban el sistema de acogida a solicitantes de asilo motivó que esta institución formulara, con fecha 19 de julio de 2016, una Recomendación a la entonces Secretaría General de Inmigración y Emigración con la finalidad de que se estableciera un sistema eficaz para supervisar la actuación de las organizaciones no gubernamentales que colaboran en el sistema de acogida.*

La respuesta remitida por la citada Secretaría General informaba de que se había creado un grupo de trabajo multidisciplinar sobre indicadores y evaluación con el objetivo de armonizar un conjunto de indicadores básicos de realización de proyectos que se llevan a cabo en el marco de las distintas convocatorias de subvenciones, con la finalidad de mejorar su seguimiento y



la necesaria evaluación, tanto a nivel nacional como en el ámbito de la Unión Europea”.

Harrera eta arreta egokia koordinatu gabe migratzaileak nazio-lurraldeko hainbat eremutara eraman ez daitezzen **ezarritako neurrien** harira Segurtasunerako Estatu Idazkaritzak eta Migrazioen Estatu Idazkaritzak eman duten erantzuna jakinarazi du Herriaren Defendatzaileak 2019ko urriaren 25ean. Erantzun horretan, hau adierazi da: *“estas actuaciones han quedado erradicadas. No obstante, lo que se produce en la práctica es que muchas personas inmigrantes, principalmente el colectivo de hombres solos, una vez de que son trasladadas a la entidad correspondiente, permanecen solo unos días, e incluso horas en la entidad, puesto que solicitan salir del programa de ayuda humanitaria porque disponen de redes de contactos de amigos y familiares y deciden emprender camino hacia ciertas grandes ciudades.*

En ocasiones, las personas migrantes requieren a la entidad receptora el pago del billete correspondiente para seguir su camino. Ocasionalmente, si se trata de colectivos vulnerables, especialmente de familias con niños, se intenta comprobar que efectivamente cuenten con redes de apoyo en el lugar de destino elegido y se solicita al beneficiario que presente algún tipo de prueba para comprobar que efectivamente es así, con el fin de evitar que cuando lleguen al destino deseado, se queden en situación de calle”.

Gogoetak

Hurrengo atalean, zenbait gogoeta egingo ditugu, Arartekoak egindako jarduketan eta azterketaren argitan. Bereziki, eskumenak koordinatu eta argitu eta lankidetzan aritu beharra garatuko dugu. Halaber, iraganbidean dauden migratzaileen harrerari eta herritar-plataformek salatutako gabeziei aurre egiteko euskal herri-administrazioek egin dituzten jarduketan inguruko gogoetak jasoko ditugu, eta harrera-politika publikoak abiarazteko beharra mahaigaineratuko dugu.

LEHENENGOA. Eskumenak koordinatu eta argitu eta lankidetzan aritu beharra dela-eta

Europara, Espainiara eta EAera iraganbidean dauden migratzaile gero eta gehiago iristeak (aurretik ere, iritsitakoen kopuruak gora egin zuen, kasu horretan nazioarteko babes eske etorritako errefuxiatuen krisiak eraginda) agerian utzi du harrera-prozesuak koordinatu beharra dagoela (baita integrazio-prozesuak ere), giza



baliabide eta baliabide material nahikoak eta egokiak bermatzeko, alarma soziala saihesteko, eta aurreiritzirik eta zurrumurrurik ez sortzeko, horiek bizikidetzazaitzen dutelako eta diskriminaziozko jokabideak eragin ditzaketelako.

EBko erakundeek urteak daramatzate integrazio-politikarako oinarrizko printzipio komunak diseinatzen. Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 80. artikulua, mugetako kontrolei, asiloari eta immigrazioari buruzko EBren politikei dagokienez, xedatzen du politika horiek estatu kideen arteko elkartasunaren eta erantzukizunaren banaketa ekitatiboaren printzipioa aplikatuko dela, baita finantza-arloan ere.

[Espainiako Konstituzioaren](#) 149.1.2. artikulua araber, Estatuak eskumen eskusibo du naziotasun, immigrazio, emigrazio, atzerritartasun eta asilo-eskubideari dagokienez.

Orain arte hartu diren neurriak estatuetako gobernuek zuzendu dituzte, eta lurralde-administrazioek ez dute izan immigranteen harrera- eta integrazio-prozesuetan erabiltzen dituzten eskumenengatik eta kontu horrekin duten loturagatik dagokien lekua (hala gertatu zen 2018ko udan), iraganbideak dira-eta.

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak eskumen autonomiko propioetan, sektorialetan, oinarrituta jarduteko zer aukera dauden aitortu du. Halaber, [urriaren 30eko 12/2009 Legearen](#)⁵ (asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen) 4. xedapen gehigarrian eta [urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren](#)⁶

⁵ *Disposición Adicional Cuarta. Cooperación con otras Administraciones Públicas.*

Las Comunidades Autónomas, de acuerdo con sus respectivas competencias en los ámbitos sanitario, educativo y social gestionarán los servicios y programas específicamente destinados a las personas solicitantes de asilo, en coordinación y cooperación con la Administración General del Estado.

Asimismo, facilitarán el acceso a la información respecto de los recursos sociales específicos para este colectivo, así como sobre las diferentes organizaciones de atención especializada a personas solicitantes de asilo.

⁶ *Artículo 68. Coordinación de las Administraciones Públicas.*

1. La Conferencia Sectorial de Inmigración es el órgano a través del cual se asegurará la adecuada coordinación de las actuaciones que desarrollen las Administraciones Públicas en materia de inmigración.

2. Las Comunidades Autónomas que asuman competencias ejecutivas en la concesión de la autorización inicial de trabajo, deberán desarrollarlas en necesaria coordinación con las competencias estatales en materia de extranjería, inmigración y autorización de residencia, de manera que se garantice la igualdad en la aplicación de la normativa de extranjería e inmigración en todo el territorio, la celeridad de los procedimientos y el intercambio de información entre las Administraciones necesario para el desarrollo de sus respectivas competencias. La coordinación deberá realizarse preservando la capacidad de

(Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzkoa, eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa) 68. artikulua xedatzen dute ezinbestekoa dela Immigrazioaren Konferentzia Sektorialaren bidez koordinatzea.

EAEko [Autonomia Estatutuan](#) ez da migrazioaren auziari buruzko aipamenik egiten. Beste autonomia-estatutu batzuk erreformatzean, integrazio-politikak eta immigranteen parte-hartze sozial, ekonomiko eta kulturalari buruzko politikak txertatu dira autonomien eskumenetan; adibidez, Kataluniako autonomia-estatutuan, lan-arloko eskumen betearazlea (atzerritarren lan-baimenak izapidetzea eta ebaztea barne) jaso da.

Hala ere, euskal herri-administrazioak ari dira harrera- eta integrazio-eginkizuna beren gain hartzen, eta, era berean, baliabide publiko ugari bideratzen ari dira horretarako.

EAEko biztanleria atzerritarra biztanleria osoaren % 10 da, [Ikuspegiren](#) datuen arabera, eta ehuneko hori Espainiako eta Europar Batasuneko batez bestekoa baino txikiagoa bada ere, bistan da errealitate esanguratsua dela. Kultura-aniztasuna kudeatzeko eta immigranteen eta nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen premiak asetzeko erronkari aurre egin behar dio EAEk.

Kudeaketa horrek gure gizartearen dimentsio sozial eta kulturala baldintzatuko du etorkizun hurbilean, eta aberastasuna banatzea edo desperekotasunak sortzea ekarriko du.

Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek neurriak planifikatzeko ahaleginak egiteko orduan, bai eta gizarteratzen eta aniztasuna kudeatzen laguntzeko eta migratzaileen eskubideak bermatzeko programak (lanerako prestakuntza, lan-orientazioa, eskola inklusiboa, sentsibilizazio-programak, gizarte-zerbitzuak,

autoorganización de cada Comunidad Autónoma así como su propio sistema de descentralización territorial.

3. Con carácter previo a la concesión de autorizaciones por arraigo, las Comunidades Autónomas o, en su caso, los Ayuntamientos, emitirán un informe sobre la integración social del extranjero cuyo domicilio habitual se encuentre en su territorio. Reglamentariamente se determinarán los contenidos de dicho informe. En todo caso, el informe tendrá en cuenta el periodo de permanencia, la posibilidad de contar con vivienda y medios de vida, los vínculos con familiares residentes en España, y los esfuerzos de integración a través del seguimiento de programas de inserción sociolaborales y culturales.

4. Las Comunidades Autónomas que hayan asumido competencias en materia de seguridad ciudadana y orden público mediante la creación de una policía propia, podrán aportar, en su caso, un informe sobre afectación al orden público en todos los procedimientos de autorización de residencia o su renovación, referidas a extranjeros que se encuentran en España, en los que se prevea la necesidad de informe gubernativo. Tal informe se incorporará al expediente al igual que el que, en su caso, aporten las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado en el ejercicio de sus competencias sobre seguridad pública.

osasun-arreta...) abian jartzeko orduan ere, aurre egin behar zaie Estatuak immigrazioaren arloan eskumenak izateak dakartzan oztopoei, eskumen horiek mugatu egiten baitute aipatutako neurrien eraginkortasuna.

Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planean (2018-2020) aurreikusi da lan-mahai espezifiko bat sortuko dela, immigrazioaren, atzeritartasunaren eta bizikidetzaren arloko eskumen autonomikoak ahalik eta gehien garatu ahal izateko lege-esparrua aztertze aldera, bereziki erreparatuz sustraitzeari, lan-baimenei, bizileku-baimenei, familia berrelkartzeko baimenei, harrera-eskumenari eta abarri buruzko betekizunei.

Horren guztiaren argitan, Arartekoaren iritziz, aitortu beharra dago hainbat arrazoiengatik joan-etorriak egiten dituzten pertsonen ematen zaien arretak **zeharkako dimentsioa** duela, lurralde-administrazioen eskumenei eragiten die-eta. Horretarako, ahaleginak egin behar dira, beharrezkoa den koordinazioa eta lankidetzaz lortzeko, horrek aukera emango baitio EAERI immigrazioaren egitate sozialari, ikuspegi sozial eta humanitariotik, erantzun egokia ematen parte hartzeko.

Horrek erraztu egingo luke Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko 2018-2020ko V. Planean aurreikusitako "ikuspegia" betetzea, izan ere plan horrek lehentasunezko jarduerazko batzuk ezartzen ditu *"egungo eta geroko euskal gizarteak honako hauek izan ditzan: berdintasuna, herritarrek eskubideak izateari dagokionez; Euskadin bizi diren pertsona guztientzako aukera-berdintasunaren sustapena; gizarte-trinkotasuna, eta elkartasun handiagoa gizarte-kolektibo behartsuenekin; begirunea pertsona eta kultura guztien dibertsitatearekin; eta gizarte-interakzioaren aldeko testuinguruaren sustapena"*, baita ere Migrazioarako Euskal Itun Sozialean adierazten diren helburuak eta konpromisoak.

BIGARRENA. Iraganbidean dauden migratzaileei harrera egiteari dagokionez euskal herri-administrazioek egindako jarduerak direla-eta.

2018ko udan migratzaileak autobusez iritsi izana gertaera berria izan zen, bai etorritako lagun-kopuruagatik, bai horiek etorri ziren moduagatik. Egoera aurreikusezina izan arren, euskal herri-administrazioek bizkor jardun zuten; izan ere, 2018ko ekainerako baliabide bat abiarazi zen Bilbon, nahiz eta epe laburrean kokapena, baliabide materialak eta giza baliabideak zehaztu behar izateak zailtasun handiak eragin. Bestalde, hasiera-hasieratik, herritar-plataformek oso aktiboki eskatu zuten erantzun egokia emateko etorritako migratzaileen egoerari; pertsona horien presentzia oso agerikoa zen Bilbon, Donostian eta Irunen.



Egoera horri emandako erantzunean, kontuan izan behar da, esan dugunez, euskal herri-administrazioek ez zekitela migratzaileak etortzekoak zirenik; izan ere, Eusko Jaurlaritzari 2018ko ekainaren 18tik aurrera soilik eman zitzaion ondorengo iritsieren berri, eta partzialki bakarrik. Gurutze Gorriak eman zuen informazio hori, eta bakarrik hartu zituen kontuan erakunde horrek penintsulako beste leku batzuetatik bideratu zituen pertsonak. Kezkagarria dirudi euskal administrazioek baliabideak abian jarri eta zerbitzu publikoen erabilera areagotu behar izatea, aldez aurretik jakin gabe zenbat lagun artatu beharko dituzten. Deigarria da, halaber, Estatuko gobernuaren berehalako arretarako programatik bideratutako pertsonen beharrak ase behar izatea, aurretiaz koordinatu gabe (behinik behin egun horietan).

HIRUGARRENA. Plataformek salatu dituzten gabeziak direla-eta.

Herritar-plataformek salatu dute, hasieran, zorroztasun handiegiaz aplikatu zirela harrerarako baliabideak kudeatzeko adostutako irizpideak, eta gabeziak izan zirela hartutako neurrietako batzuetan. Horren ondorioz, plataformek erantzun jakin batzuk eman zituzten, batez ere 2018ko urrira arte. Hautemandako gabezieta batzuk esku hartu zuten eragileen arteko informazio- eta koordinazio-arazoen ondorio ziren, zenbait argibide eskatu ondoren egiaztatu denez.

Arartekoaren iritziz, herri-administrazioek, gizarte-erakundeekin koordinatuta, emandako erantzuna hautemandako beharretara egokituz joan da pixkanaka. Denbora laburra izan zen plazak abian jarri eta baliabideak kudeatzeko, eta ez zegoen aurreikuspenik. Horrexek eragin zuen, zalantzarik gabe, hasieran desoreka jakin batzuk egotea.

Arartekoaren ustez, erakunde arteko mahaietan parte hartu zuten euskal herri-administrazioek lortutako akordioei esker, pixkanaka, erantzun eraginkorragoa eman ahal izan zitzaizen iraganbidean zeuden migratzaileen berehalako premiei.

Hala ere, migrazio-mugimenduak aztertuta ondoriozta daiteke migratzaileek helmuga aldatzen dutela eta aurretiaz hartutako erabakiak egokitu egiten direla bidetik; beraz, dinamismo horrekin eta egoera anitzekin bat datozen erantzunak aurreikusi behar dira.

Emandako erantzuna, bai eta etorkizunari begira aurreikusitakoa ere, hauxe izan da: eskura dauden gainerako baliabide eta zerbitzuez gain, iraganbidean dauden migratzaileei arreta emateko sare bat sortzea. Arartekoaren iritziz, zentzuzkoa da aurreikustea iraganbidean dauden migratzaileek hasiera batean Euskadi helmugatzat aukeratu ez badute ere, ondoren, erabaki hori alda dezaketela; horregatik, sor daitezkeen egoera anitzak hartu behar dira kontuan.



LAUGARRENA. Immigranteei eta nazioarteko babesa eskatzen dutenei harrera egiteko politika publikoen beharra dela-eta:

Iraganbidean dauden migratzaile gehienek Europaranzko bidea jarraitu dute, baina ehuneko txiki batek, aipatu dugunez, erabaki du EAEn aurrera eramatea bere migrazio proiektua. Izan ere, gizarte-erakundeek, [Caritasek](#) kasu, Hegoaldeko mugatik datozen zenbat lagun artatzen dituzten adierazi dute. Horren harira, kontuan izan beharko litzateke balitekeela pertsona horiek gizarte-arreta handiagoa behar izatea, eta, arreta hori emateko, beste gizarte-baliabide eta -zerbitzu batzuek esku hartu beharko luketela.

Horri dagokionez, immigrante askok dute, besteak beste, beren gizarteratzea sustatzeko beharra. Gizarte Zerbitzuei buruzko [abenduaren 5eko 12/2008 Legearen](#) zioen azalpenean honela definitzen dira gizarte-zerbitzuak: *"ongizate-estatuaren benetako oinarria", "erantzukizun publikoko eta estaldura unibertsaleko sistema, herritar guztiei zuzendua"*. Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren helburua honako hau da: beste sistema eta politika publiko batzuekin lankidetzan arituz eta horiekin koordinatuta, autonomia pertsonala sustatzea, eta mendekotasunaren, babesgabetasun-egoeren, pertsonen, familien zein taldeen bazterketa- eta gizarteratze-arazoan eta larrialdi-egoeren ondoriozko beharrezan pertsonal eta familiarrei aurrea hartzea eta haiek asetzea.

Gainera, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 3.3. artikulua araberan, "Euskal Autonomia Erkidegoan dauden pertsonak informazio-, balorazio-, diagnostiko eta orientazio-zerbitzuez baliatu ahal izango dira, bai eta gizarte-premia larrikotzat definitutako zerbitzu eta prestazioez ere". Bestalde, [urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak](#), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, ez du administrazio-arloko eskakizunik ezartzen 1.1. fitxan (informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzua). Horrez gain, benetako bizilekuaren eta erroldan izena emandakoaren arteko lotura ezartzen du egungo araudiak⁷. Horregatik, ukaezina da gizarte-zerbitzuek protagonismoa dutela immigranteen harrera- eta integrazio-prozesuetan, baina azpimarratu behar da ez direla inplikaturako zerbitzu publiko bakarrak.

⁷ Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen) 15. artikulua eta hurrengoak, eta 2015eko martxoaren 16ko Ebazpena, Idazkariordetzarena, zeinaren bitartez argitaratzen baita 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpena, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakariaren eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiarena, udalei udal-erroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkiena.

Arartekoaren ustez, hausnarketa egin beharra dago, zehazteko nola egin behar den harrera-prozedura eta zer administraziok emango dieten arreta EAEn bizi nahi duten pertsonen. Bizileku- eta lan-baimenik izan gabe edo aurkeztu zuten nazioarteko babes-eskaera ebatzi ez delarik Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren beste atzerritar batzuk bezala, pertsona horiek ere une jakin batean EAEn dauden zerbitzu publikoetara bideratu beharko dira, eta, beraz, beharrezkoa dirudi dauden zerbitzu publiko unibertsalera bideratzeko eta arreta emateko aurreikuspena jasotzea. Horren harira, Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planean (2018-2020) jasotako printzipioetako bat aipatu behar da, hain zuzen ere berdintasunaren, giza eskubideen eta diskriminaziorik ezaren printzipioa: *“Berdintasun-printzipioak giza eskubideen titulartasuna al bait zabalen izatea dakar, EAEn dagozkion eskumenen eremuan. Eta eskubide zibilez ez ezik, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arloko eskubideez ere ari gara eta bertan bizi diren guztientzat orokortzen dira eskubide horiek, haien nazionalitatea kontuan izan gabe; eskubide politikoez ere mintzo gara, autonomia- eta toki-ordenamendu juridikoan txerta daitezkeen neurrian. Bestalde, eskubide eta betebeharren berdintasun formalarekin batera, berdintasuna sustatzeak bi alderdi biltzen ditu: alde batetik, tratu-berdintasuna, eskubideen bazterketa eta diskriminazio mota oro debekatuz pertsonen ezaugarri fisikoak, ideiak, kultura, sexu-orientazioa, posizio ekonomikoa eta abar direla-eta; eta bestetik, aukera-berdintasuna, pertsona guztiek gizartean aukera berak izateko eskubidearekin eta ekitatearekin loturik, aurreiritzi errotuen eraginpean dauden talde jakin batzuen gizarte-desabantailako egoera orekatzeko neurriak hartzeko aginduz botere publikoei”*. Arlo juridikoan ere bete beharko litzateke neurri programatikoa: *“Bermatzea atzerritar etorki, jatorri eta/edo nazionalitateko herritarrek benetan eskura ditzaketela bitarteko sozialak EAEn gainerako biztanleen baldintza beretan”*. Ildo berean nabarmentzen da, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen 2017-2020rako Planak jasotzen duen elkartasun-printzipioa: *“Gizarteak eta erakunde publikoak berdintasunean eta elkartasunean oinarrituta dauden eta integrazioa, kohesioa eta justizia xede dituzten politika publikoak bultzatu behar ditugu. Politika publiko horiek hezkuntzaren, osasunaren edo oinarrizko gizarte-prestazioen unibertsaltasunaren alde egin behar dute irrimo, eskubideen, betebeharren eta aukeren berdintasuna ahalbidetzen duen gizarte kohesionatu bat izan dezagun.*

Halaber, aipatu beharra dago [apirilaren 7ko 2/2016 Legearen](#) (Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa) 17.1.35. artikulua arabera, udalerrien berezko eskumena dela honako hau: Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.



Lehentasunezko jarduketak izango lirateke, besteak beste, udal-errodan izena emateak duen garrantziari lotutakoak. Horregatik, bizitoki bat eskuratzeko zailtasunak ikusita, Arartekoari erabilgarria iruditzen zaio benetako bizilekuari buruzko araudian ezarritako betekizuna betetzen dutela egiaztatzen duten pertsonen erroldako izen-ematea arintzeko aukera ematen duten protokoloak izatea.

Azkenik, udaleko gizarte-zerbitzuekin egindako bileretan, agerian utzi da gizarte-larrialdietako udal-zerbitzuak ez duela esku-hartze sozial espezifikoa (EAEn bizi diren eta gizarte-zailtasuneko egoeran dauden gainerako pertsonetik egiten denaz bestelakoa) egiteko aukera ematen duen dimentsiorik. Plaza-kopurua baino handiagoa da eskaria. Gizarte-larrialdiko bizitokiak edo eguneko zerbitzuak ez daude erabat garatuta udalerrri guztietan, edo, bestela, indartu egin behar dira, gizarte-premiak areagotzen ari direlako. Kontuan hartu beharreko zerbait izan daiteke gizarte-zerbitzuen mapa eskualde guztietara hedatzea behin betiko hedatzea. Hala ere, aldian behin aztertu beharko lirateke migrazio-mugimenduen ondoriozko dinamismoa eta sortu diren gizarte-premia berriak, beharrezkoa izanez gero aurrekontu-zuzkidurak handitzeko.

Azkenik, erakunde honek beharrezkotzat jotzen du bi gai nabarmentzea: batetik, migratzaileei beren esperantzei eta premiei buruzko iritzia eskatu eta kontsultatu egin behar zaiela, esperientzia horiek ezinbestekoak baitira migrazio-fenomenoa bere osotasunean ulertzeko; eta, bestetik, osasun-arloko gaur egungo itzulpen-sistema ebaluatu behar dela (baita gizarte-zerbitzuetakoa ere). Horren harira, berriz ere aipatu behar dugu [Arartekoaren gomendio orokor](#) hau: *“Etorkinei beren eskubideez baliatzean laguntzeko, administrazioaren ardura zerbitzu publikoen hizkuntza erabilgarritasunaren bermeari dagokionez”*.

Ondorioak

Laburbilduz, eta ebazpen honetan egindako azterketa aintzat hartuta, Arartekoak, interesgarriztat jotzen du ondorio hauen berri ematea, bere eginkizunen esparruan, azterlanaren xede den eremuari lotutako gogoeta batzuk helarazteko:

1. Euskal herri-administrazioek hasieratik egin zituzten hainbat jarduketa, iraganbidean zeudelarik gurera iritsitako migratzaileen kopuruari dagokionez 2018ko udan ustekabeen izandako gorakadari aurre egiteko, zeuden baliabideak egokituz eta gizarte-baliabide osagarriak abian jarriz. Gainera, administrazioen arteko eta administrazio barruko koordinazioa garatu dute, eta gizarte-erakundeek ere horretan parte hartu dute.



2. **Informaziorik izan gabe eta Espainiako gobernuak aurretiaz koordinatu gabe egin dira jarduketak.** Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Migrazioen Estatu Idazkaritzak Herriaren Defendatzaileari igorritako txostenean aitortu du erabat gaitzesten duela Espainia hegoaldeko kostaldeetako hirietara iritsi diren atzerritarrak autobusez beste hiri batzuetara eramatea, horien harrera koordinatu gabe, eta iragarri du neurriak hartu dituela horrelakorik berriro gerta ez dadin.
3. **Iraganbidean dauden migratzaile horien premiekiko elkartasuna agertu du euskal gizarteak.** Boluntarioak plataforma eta erakunde sozialetan bildu dira, eta zenbait jarduera egin dituzte. Sustatu behar diren giza balio partekatu eta laudagarrien adierazgarri dira jarduera horiek, gaur egun zein etorkizunean gizarte justuagoa lortzeko ezinbesteko bermea baita elkartasuna.
4. **Harrera- eta gizarteratze-prozesuen ondoriozko premiak direla-eta, eskumen-esparrua argitu beharra dago, eta haiek euskal agendan eta ekintza politikoan sartu, esparru konstituzionala errespetatuz, funtsezkoak baitira euskal gizartearen etorkizunerako, gizarte-kohesioari, berdintasunari, aniztasunari eta diskriminazioaren aurkako borrokari eutsi eta aurrera egiteko.**

Eskumenak argitzeak eta EAeri immigrazioaren, atzerritartasunaren eta bizikidetzaren arloko eskumenak transferitzeko aukera emateak erraztu beharko lukete etorkizunean harrera- eta gizarteratze-politika koordinatua, eraginkorra eta zorrotza gara daitezen EAEn.

5. **Iraganbidean dauden migratzaileei arreta ematerakoan, abian jarri dira, alde batetik, baliabide orokorrak, iraganbidean dauden pertsona guztientzat, eta bestetik, berriazko baliabideak, egoera bereziki zaugarrian daudenenentzat eta nazioarteko babesa eskatu dutenenentzat.** Gainera, pertsona horien premiak bereizi egin dira EAE helmugatzat aukeratzen duten immigranteen beharretatik. Horrez gain, arreta-programa bat diseinatu da, eta, han, iraganbidean dauden migratzaileei 2019an arreta emateko orduan sor litezkeen zenbait egoera aurreikusi dira.

Metatutako esperientziari esker, programa horren indarguneak eta ahuleziak ebaluatu ahal izango dira etorkizunean. Kontuan izan behar da ez dela fenomeno iragankorra, egiturazkoa baizik; beraz, **aldian-aldian ebaluatu behar dira emandako erantzunak, eta erantzun horiek errespetatu egin behar dituzte gainerako pertsonen zerbitzu publikoetan eta integrazioaren eta aniztasunaren kudeaketaren arloan euskal politika publikoak planifikatzeko tresnetan ematen zaien arreta sozialak oinarri dituen printzipio berberak.** Aintzat hartu behar da migrazioaren gizarte-egitateari, fase guztietan (harrera, integrazioa eta



gizarteratzea), arreta arduratsua ematea, aniztasuna kudeatzea eta diskriminazioaren aurka borrokatzea funtsezkoak direla migrazioak dakartzan gizarte-garapenari eta gizarte-mugikortasunari begira.

- 6. Erantzukizun publikoko kontua da Euskal Autonomia Erkidegoan babesari eta gizarteratzeari lotutako premiak dituzten pertsonen gizarte-arreta ematea,** Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearekin bat. Beraz, lege horren helburuetako bat da Euskal Autonomia Erkidegoan bititzea erabakitzen duten immigranteei harrera egitea, eta jo beharko litzateke gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren zerbitzu eta prestazioen zorroan sartzen dela, gizarte-zerbitzuen sistemaren bidez asebetze beharreko premiei dagokienez. Horrez guztiaz gain, kontuan izan behar da ez dela kolektiboen arabera mugaketarik egon behar, gizarte-zerbitzuen konfigurazioa dela-eta, pertsonen bizitzan zehar sor daitezkeen gizarte-beharrak babestearen alde egin baitu. **Horretarako, gizarteratzeari lotutako zerbitzu jakin batzuk indartu behar dira, eskariaren gorakadak nahitaez eragingo baitie horiei.**
- 7. Nolanahi ere, hausnartu beharra dago lehenengo etapan egingo diren harrera-jarduerak antolatzeke arau-esparrua ezarri beharri buruz; han jasoko da zer eskumen eta funtzio dagozkion EAEko eskumen-esparruetako erakunde-maila bakoitzari eta zer zerbitzu eskainiko diren.** Fenomeno globala denez, multilateralismoa eta lankidetzaren oinarri hartuta baino ezin da jorratu. Maila anitzeko gobernantza-ereduan, eskumen-maila desberdinek eta eragile publiko zein pribatuek hartzen dute parte, eta horren ondorioz eredu horrek berekin dakartzan inplikazioak direla-eta, behar bezala argitu behar da antolaketa-egitura.

Izan ere, hiru erakunde-mailak mobilizatu egin dira erantzun bera emateko, eta horrek agerian uzten du arlo hori ezin daitekeela bakarrik gizarte-larrialdiko udal-zerbitzuen esku egon, are gehiago kontuan izanik zerbitzu horiek ez daudela osorik eta uniformeki garatuta udalerrira guztietan. Bestalde, udalek eskaintzen duten hurbiltasunak eta udalerrira jakin batzuek bultzatzen dituzten programek argi eta garbi bultzatzen dute immigranteen integrazioa. Horren harira, **Arartekoaren ustez, argitu beharko litzateke zer eskumen, eginkizun eta zerbitzu dagozkien immigranteei harrera egitearen arloan inplikaturako euskal administrazio publikoei eta sailei, horien eraginkortasuna hobetzeko eta okerrak saihesteko; izan ere, egitura horrek, orain arte, ez ditu osoki aintzat hartu, gizarte-egitate horren izaera transbertsala eta estrategikoa, eta ezin da aurreikusi zer-nolako dimentsioa izango duen fenomeno horrek etorkizunean. Giza eskubideak errespetatzen dituen gizarte-eredua diseinatuko badugu, EAEk gai izan beharko du fenomeno horri erantzun egokia emateko.**





8. Orain arte, **immigrazio-arloko hainbat plan eta estrategia** prestatu dira, herri-administrazioek —Eusko Jaurlaritzak, nagusiki, baina baita foru-aldundiek eta zenbait udalek ere— Euskal Autonomia Erkidegoko immigrazioak dakartzan premiei aurre egiteko. Hala ere, dokumentu horiek ez dira nahitaezkoak, eta, horregatik, **modu desberdinean** aplikatu dira lurralde osoan zehar eta eremu bakoitzean.

Immigrazioaren eta aniztasunaren kudeaketak zeharkako izaera du, eta, beraz, arlo horretako jarduera-planak prestatzeko egin den ahaleginak arrakasta izan dezan, plana beteko den konpromiso irmoa hartu behar da, edo, bestela, plana betetzen dela bermatzeko beste tresna arauemaile batzuk ezarri behar dira.

